III URTEA
121 ZENBAKIA
Dagoniĺa 12
IGANDEA
DONOSTIA 1923

BIDAYEN ITUNDUBA
FRANQUEO CONCERTADO

AŔGIA

ASTEROKOA

UŔTEKO: 5,50
Bakoitza: 0,10

28. GARIBAI
25-05 UŔUTIZKIŃA

ASTEA

DIPUTAZIO BEŔIAK. — Egun oetan beŕitu dira gure Diputazioak: lau uŕte batuan zeramazkiten diputaduak iŕten dira (beŕiz izendatuak izan ez baldin badira beintzat) eta beŕiak saŕtu dira. Lendakariak autatu dituzte, ta lendakari-ordezko ta batzaŕ txiki guzietakoak ere bai. Baŕi beŕi, pozik eta ieniz gaude bada.

Napaŕuŕ Aldundiko Lendakari (Napaŕo'ko Diputazioa'ren buru) Gabriel Eŕo jauna egin dute; Bizkai'koa Zeferino Urien jauna; Lino Zurikaldai jauna Araba'koa, ta Gipuzkoa'n beŕiz lengoa bera, Julian Eloŕtza jauna.

Ez da asaŕerik izan, istiľurik ez. Bare-bare, «pake santuan» egin dira gauza guziak. Diputazio bakoitzekoak, osatu bezin laister, beste iru Diputazioekoei aguŕ egin die, eztiro ta maiteki, ta euskaldun guzien anaitasuna diz-diz ibili da. ¡Beŕi oŕela, jaunak!

Beren aŕteko maitetasun ori, Gipuzkoa'n azaldu da ikon baño geigo. Bakoitzak bere burua gorato nai ez izan aŕen, bakoitzak bere alderdia, bere paŕtidua, bestien auŕean, besteak baño gorago. Ikusi nai izaten du, ta askotan, oŕtik jaiotzen dira naspila ta korapiloak. Gipuzkoa'n ori gertatu ez zedin, integristak, beren gogoz, ala nai izan dutelako, guzien atsean jaŕi ta auŕerako bidea besteguziei zabal utzi diete. Ez dute ezeŕ eskatu, ta ezeŕ gabe gelditu dira.

¿Ezeŕ gabe? Ez orixe: nik nerezat gaŕen naiko nuken saŕiarekin: ¡gipuzkoaŕ guzien txalo bero ta eskeŕ xamaŕenarekin. ¡Beiondaietela!

Gipuzkoaŕak, Bizkaitaŕak, Arabaŕak eta Napaŕtaŕak, Diputazio beŕiduak dira bada. Jaungoikoa buru, ta jaurera Euskalerŕia'ren alde!

***

PRADERE-AŔUTTAŔ BLAS JAUNAREN ERIOTZA. — Il onen 4'ean il zan apaiz euskalzale au. Aldi ontan ¡zenbat eta zenbat dijoazkigun banaka-banaka!

Orain il dan au, euskalzalien aŕtean ez zan ezagunenetakoa. Eguneroko ta aldizkakoetan ez zan idazten, eta, ori zala-ta, bere izena itzal-samarean zegoan.

Euskeraren alde, ordea, lan polik egin zituan, eta sariketetan sariak ondotxo irabazi ere bai.

1897'g. uŕtean Oyaŕtzun'en izan ziran euskal-jaietan, «Oyaŕtzun eta bere seme ospatsubak» deritzaion lana saritu zioten. Geroago, 1905'garenean, Beŕgara'n iru sari ta bitezaŕ bat irabazi zituan. Saritutako idazlien izenak oek dira: «Beŕgara'ko seme aŕgiduntarak», «Aitzbeitz'eko iturioa» ta «Peñaflorida'ko Kondea. Luŕbirako adiskiden alkarkida lenengo ijiñi zubana». Bitezaŕa, lan onekin irabazi zuan: «Beŕgara'ko aŕgidiz jakiosu dakiztaŕ eŕegezkoa». Azaltzeari utzi zion «Euskal-Erria»'n ageŕtu ziran lan oietako batzuek.

Tolosa'ko euskal-jaien bitartez «Euskalerŕiaren alde»'k 1912'gaŕen uŕtean egin zuan batzaldian «Tolosa'ko eŕiyaren izenak lenago eta orain» deritzaion lanagatik sari bat eman zitzaion, eta andik bi uŕtera, Ondaŕbi'ko euskaltaŕak ziraia-ta egin ziran batzaldietan, «Aundiguei eta aginbideai zaŕ zayoten begirunea» ta «Edaleentzat gogoangaŕiyak» izendatu zituan lanaz, bi sari irabazi zituan.

Oñatiaŕa zan, eta Donostia'n il da, 72 uŕte beteak zituan.

¡Jaunak bere besoetan aŕtu dezala!

JEME

GOTZAI BEŔIA DONOSTIRA

Larunbat ontan (Igandeko eguneza edo fetxaz atera aŕen, larunbaterako eskuan dezute donostiaŕak AŔGIA au) 11'an datoŕkigu Donostira gure Gotzai (Obispo) beŕi Aita Zakarias Martinez egunsentiar jakintsu ta aguŕgaŕia.

AŔGIA'k, bere eliztaŕai lenengoz euskeraz itz egin dien Artzai maitearí Donostian saŕtzean biotzezko Ongi-etoŕia damaio bere menpetasun osoa beŕiz eskeiñirik.

¡Donostiaŕ kristau euskaldunak! Bere elizaren aŕima zaitza arduraz aŕturik euskaldunai lenengoz euskeraz itz egin dien Gotzai onbidetsuari zure eskaŕona ageŕtzeko aldiŕik egokiena egun ontan dezute. Ateŕa zaitea ta maitekoŕ bat egitera bearturik zaudete.

Zuen etxeetako balkoi ta leyoak oyal ederez apaindurik ageŕtu ditezela.

Aŕatsaldeko 7'etan Donostira eltzeko da. ¡Santa Maria'ra guztiok otdo oŕtara!

Ozkaren ondoren eguzki garbia, nekearen ondoren zoriona.

Andre Maria'ri oroipena

Zeruko Ama gozo Andre Maria'k gure Gipuzkoan dinbotez bas eltzatxo ez dakit nun izan ditzakian. Beste toki batian ostenbeste biltzen ianik asko.

Ongi begiratu ezkero iaaiaŕ bakoitzak badu bere etxe-tauria, etxe txadiak bere gure Eŕogiharen irudia.

Ara an Arantzazu: ara aŕ Izinr. Ona omen Guadalupe: ona-oŕ Izaskun, Iziskitza, Antigua ta Lierni.

Goienengo oŕaik becaka aiko bauitza, sokoneon eta urengo tontorean, eŕia-eŕi esi ezkero, goizetik alatsere, ez aike bakafuko.

Gaur txikia jakitenik auadia ezagutua balego, gertaritxo bat esango nizuke. Arantzazu'tik Urbia'ra oŕoaretan nituan, bein batten. Pagadi itxudun batena gituzela aŕtzai bati zeŕ aditu nion ez naiz aztuko. «Nuestra bezela gaduzen» galdetzian: «pagoko Ama Maria'u», erantzun zigun.

¿Zer zan bera? Aregizko begiaz bakarik begiratu ezkero ezeŕ-gitxi, goez txikis.

Pago leŕ baŕi, ez dakit noiz, baŕengo mami gorane kendu zioten eta eraistan bezela Maria'ren irudia tinaiko ipini zioten eta an dagon. Paguen «Ama Maria'ren payua» deitzen diote.

Urbia'ko aŕtzaien anpolaia bezelako aiaba zuri-goŕiek aŕkaitz aŕtetiko lore mardulak bildu ta xortarzuetan eramaten dizkiote. Ez uste izan lorian be-aiñian bakaŕik dirala. Goletan ere bedira, ta usoiñauk. Aien lore aŕtien diasaz beren biotzak. Biotzetik datai beŕiz nlingotak izkeson.

Ara emen azakiu gure maitetasunean, eskaintzen eta ikustuen gala.

Gaurtxe txapela erantziña Ama Maria'ren zaren *Salve Regina* edo *Aguŕ Maria* bat esan gabe inon ditekian bada izu aingeŕu gogoitsua aia gaildu zaion elitzaŕia bezela ikusiko da. Bat obe-ere ta.

Gizatxo-gizaldien gure aurkuak oŕetia datoz.

Ama esanaz gure auŕei mingaña askatzen zaie, eta *Ama Maria* gogoz esanaz gure zaŕak begiak beŕiko itxiten ditazu.

Euskal eŕiko omak xeeska onduan Ama Maria'ren abesti gozoak ezŕaŕi gaŕtiaz esaten dituzte. Neska ta mutilak aŕi-zai dabiltzanian, edo bei zai baruian, sakontan ta tontorian, munoi ta beŕi, inoŕtakin bat egiñez Ama Maria'n abiarua ugaetan beren omeztak ixaltzen dizkiote.

Ona emen gazteñadi batian, adaŕetako oaazak bir-bir aiziak zebiltzala, *damatxo* bati aditu nuek. Ez dakit bera zeruti ichda bazan ere

Gora ta gora zeru aldera
Gogo saltsuaz begira,
Gau eta egun nere begiak
Asperzen ere ez dira.

Antxen bofiago nere etxia
Bizi tokirik onena,
Antxan baŕtasko nere biotzak
Ama denetan maitena.

Maite deguna dagon tokian
Maite danaren ondoan,
Atsegin ol da nekazea ere
Maitia dala gogoan

Baña maitia, maite laanda,
Arongenilikan ufuti
Ai au, nekia kendu caunda
Maite deguna barua!

Maite mama jaan altzaidan
Erbesterikan eŕira
Orengatikan daazkei begiak
Zerura gore begira.

LOENTXO

GURE PILOTARIAK

BITORIANO GANBORENA

¿Jakin nai al dezu nolakua zan Bitoriano amabien bat urte zituenean? Ikusi Juan zan urtean gertatu zan esan diagoena. Gernika'n aengoan, Bizkai'ko uri polit ortan Congreso de *Estudios Vascos* edo Eusko Ikaskuntza-batzaŕe zala-ta. Ene, an bildu giñanak; an eŕkoŕ ikusi genduen Euskal eŕiko semoakitzak, idazkariak (escritoriak), lege-gizonek, erakusleak (maisteoak), itsas-gizonek, margolariak, (pintoreak) apezak, praileak, elegua, goberuadoreak, diputaduak, abeslariak, soñulariak eta ¡aŕrako! Eŕenderi'ko dantzari txikiak ere. Alde batera utziko ditut Eŕenderi'ko Batzokiko emakumezko ta gizonezkoek egin zituzten antzerkiko (teatroko) jaiak oso ederki egon ziran, eta Eŕenderiko izena goi-goi utzi zuten.

¡Aŕtal irakuŕlea. Alabeste moeta, gisa era edo moduko lagunen aŕtean ikusi nituen Eŕenderi'ko makil-dantzari txikiak eta begi guziak aien atzetik zijoazen: eta aŕazoiakin gañera; bada beren dantza polit zoragaŕiak ikusten ana zabalik egon giñan gozaz. Beren eginkizuna bete zutela ta esan zaten: ¡Eŕenderiko mutilak!, eta atzera biurtu ziran beŕiz etxe aldera. Ni egun bat aiek baño lenago aŕtera beaŕ izan nuen Gernika'tik; Amorebieten zeŕ egin beaŕ bat banenkan eta. Biaramonean bada *Zaŕauto* aldera niajoala ikusi nituen bi gazte iŕendi patuaten eri alde zijoazela; Eŕenderi'ko bi dantzari txikiak ziran.

—¿Nora zoazte, mutilak?

—Eŕi ontan degun lagun bat ikustera; irauak ordo erdi nai edo ola geldiu beaŕ omen du ta.

—Ederki mutilak; aŕdiskoaeak izan beaŕ dute beti Eŕenderi'ko semeak; biotz onekoak eta maitagaŕiak.

Zaraotza'ko (Amorebieta'ko) eliza *estacio* ta eŕiaren bitartean dagoela jakingo degu noski irakuŕlea; ta ezpaazenki orain esaten dizut; beira ere jakin ezazi oŕi dizut. Ella pereak tzaten dirala gelenatan *pilotari* txikientzako *plazik* ederenak.

Eltzondo'tik igarotzean *plist-plast*, iceŕdian urte ta aŕi ziran pilotan ¿zein uste dezute? Iru makil-dantzari txiki.

—¿Zer aŕi zerate emen, trena alde batera utzi ta?

—Jauna, *Sarbasta* onek apostu egin digu treseen batetz irani pilotan irabazi ta emen aŕi gera. Ordu laurden bat bazerik ez degu ta ikusi beaŕ degu zeñek irabazten ote duen. Uste zuten, edo uste izan nuen nik Txikitoaren ondoko eliz paretan aŕi ziatzala al ere.

Mutil koskor dantzari txiki ura Ganborena'ren semea zan, ma ibasi zien partida iru lagun aiei. Beraz esan diteke Bitoriano bere semea bezelakoa zala.

ITUŔIA

(Jaraituko da.)

"Tene,,'ren idazkiak

«Idazkiak eta Olerkiak» deritzaion idazti eder batean bildurik argitaratu dira *Tene* idazle ospetsu ta ezagunaren idazki eder ta mamitsuak.

(Oraintxen aŕtu degu idazti eder au: eskeŕak bialdu digunari.)

Egileak bere itzaurrean diones, idazti ontan ez omen degu «ez eleŕtiaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon batean irakasterik, ezta gogo epentsuzɑ gayargirik» ere bilatzen ibili bearik. Ala de: bilatzen nekala beaŕik ez degu: bada, irakurtzen asteaz bakarik iru idazkera gogoangaŕi oyek somatu ditugu. baita beriala aŕkitu ere, egileak «ez ditugula arkituko» esan aren.

«Izortxo»'ri zuzentzen dizkan ameretai idazkietan gal jakinguŕi, onuratsu ta beaŕ-bearekoak (emakumeentzat batez ere) argiro azaltzen ditu.

Ondoren, ogeita iru olerki polit eta ezitsuak dakaŕzki. Ona emen oyetako bat.

AMA

O zein mutiltxo polita
amatxok daukana!...
Ta nolako lo ederra
egingo duana!

Ea ba, maitia... txastai
saaska epelean...
orain estali... ¡ederki!
Ara ama zure ořena.

Baña... begi argiakin
maite, begitzen nazu!
onela... itxi leyua ta
laister lo egingo-zu.

Negar?... Ea orain nai maite
amatxok geia ikustzerik?...
Ora ba leyua irtkit!
¡Joan mamua emendik!
Ea polite, egin lo,
ama emeatxe daukazu,
eta zuk lo egin dazun
berak abestuko dizu:
¡lo lo! maitetxoa, lo, lo!

Nekez baña, loak artu du
nere biotzeko panka:
orain nuan txil-txilik
neure lanak egitera.

Ai baña... nork utzi berau?...
Nola alde bereneangondik?...
Gizaion... lo dago ta
¡ene! iŕipaŕe egiñen dit!

Tira: laztan bat emanda
nuan nere lanetera;
Ez!... obeko dit ez eman,
bestela esnatuko da!

Leyua... etxia... txira...
nuan bai, nuan emendik...
baña... ¡ne esnatu beaŕ det
laztan bat emanagatik!

Poliki... poliki, ba... ¡p...a!
¡Ai! Esnatu, zu, polita?
Ez laztana! Egin, lo, lo,
amatxok abestuko-ta:
¡lo, lo! maitetxoa, lo, lo!

***

Olerki onek erakusten dizute besteak ere ze politak izango diran.

126 oŕialdean idatzi edo liburu ayaña da, ederigaluz eta beste irudi ugariz jantzia. Alaz ere 10 eŕealetan saltzen da.

Zoriona bere egile euskaltzale mitsuari, baita bere irarle «Jaungoiko-Zale»'ri ere.

GARBI

EREDI-OLA
Aruti'ren Alaŕguna'rena
Era guzietarako eŕediyak (moldiak)
EREDI ERAKUSKETA
Egerki Alde - Uŕutzikiña 16-89
ZARAUTZ (Gipuzkoa)

¡Dantza lotua!

Eŕi on, zintzo, gaŕbi eta zorioneko aginiaria al zera? ¿Nai al dezu zure eŕi ori gaiztotu, euskal oitura eder gaŕbik galdu, lolkeria eta zikinkeria besterik ez dagona ipiñi, eta negaŕ asko egiñ arazi, eta itz batean esateko, eŕi zoritxaŕeko bat egin? Edozein aitzekirekin musika jaŕi edo eknŕi zazu, edo beintzat dantza lotuan ibiltzen utzi zazu, aŕdandegiak eta bilera txaŕak Jainkoak dakien aŕte irikita eukitzen utzi, baño gero, etzaitezela aŕitu zeren mendeko askorekin batean, mundu au uztean, Jainkoak, zu eta zere mendekoak gogoŕ zigoŕtzen bazaituzte betiko zoritxaŕekoak egiñaz.

Bere beiaŕi, begi ta mingaña onelo zaitzen dituna, zorionekoa izaten da.

Jabieŕtxo azkaŕa [1]

Jabieŕtxo Bilbao'n jayo zan; eta zortzi urte zituan aŕen, euskeraz bairik itz-egiten etzakien. Bilbao'n bizi ta euskelduna izan, eta erderarik etzekiana gañera; oŕgaŕio da, ezta? Bai, noski. Jabieŕtxo'ren gurasoak noleakoak ziran, ordea? Gurase guzi izan ei diran bezelakoak. Ayek, bai, gure euskera kutuna maite-maite zutela! Eta euskara maite zutelako, etxe artan guziak euskeldunak ziran.

Jabieŕtxo jayo zanian ba, amak aitari onela itz-egin omen zion: Jaungoikoak eman digun semetxo onen, zortzi urte bete-urte beintzat, euskeraz bakaŕik itz egin beaŕ diogu; geroztik ere erdera ikasteko bete izango du-ta. Aitak asmo ori onetsi aŕtu zuan; eta Jabieŕtxo etxean euskera beizik aitzen etzualarikan asi zan. Ikastetxera ere etzuten bidaldu nai izan zortzi urteak bete-arteraño. Ez ba; euskeraz itz-egiten dan ikastetxerik Bilbao'n ez omen da-ta. Oŕe ikastetxe au bezelakoa izan be-zuten, ura Jabieŕtxo'ren gurasoen pozal txiki-txikitatikan bidalduko zuten, bai, ikastetxe artara. Baña olakorik ezzanela, ezin bidaldu.

Ez uste izan, gero, Jabieŕtxo'k ezer ikasi etzuala, ez orixe. Jabieŕtxo ume txintoa zan, eta ume txintoak ikaskoŕak izan oi dira, ta nork irakatsi izan ezkero, asko ikasi oi dute. Jabieŕtxo'k ba zuan, bai, nork irakatsi: bere aitamak ziran Jabieŕtxo'ren irakasleak. Olaxen, ba, ikastetxera joan gabe, ikasi zuan irakuŕtzen, idazten, Kristau ikasbide-erdia, Edesti Deunaren zati aundia, Eusko-Lurdestia, baita polikí samar kontuak egiten ere. Guzian euskeraz ikasi beaŕ izan zuan, noski; erderarik ezpai-zekien. Ura orainditikan norbaituzuk euskeraz bakarik ezeŕ ezin ikasi daitekela esaten omen dute. Ori gezuŕa!!

Azkaŕa zan, gero, gure Jabieŕtxo. One eŕeca, bein egin zuana. Arakiñak-eta, ogigiñak eta ilabetero etxeko papertxoak ekaŕtzen zituztela aiteatu zuan, bai?, ta bereala, papertxo ayek zertarako ziran, eta beren ordez zergatiken dirua ematen zitzayen, amari galde-egin zion. Amek erantzun zion, papertxo ayek aŕtu-emon-agiriak, edo kontu-paperak, zirala; eta arakiñak-eta lan egiten zutenezkero berai dirua ematea bidezkoa zala. Orduan Jabieŕtxo'k asmo polita aŕtu zuan: ilabete aŕten amari egin zizkan mandatuak eta abel zegokien dirua papertxuan jaŕi, ta intorduako amari mai-gañean utzia.

Asmatu ta egin. Paperan auxe jaŕi zuan:

Amatxok Jabieŕtxo'ri zoŕ diona:

Zortzi bider egura txikitu dioiako	2 pezeta
Zortzi bider aura zaitzen egon dalako	9 —
Askotan atez irikitzera joan dalako	5 —
Beste mandatuak egin dizkiolako	4 —
Ilabete ontan txintxoa izan dalako	8 —
Guzia	16 pezeta.

JABIEŔTXO

Ama, bazkalondoan papertxoa ikusi zuanean, aŕitura geratu zan, baña ezertxo esan gabe papera aŕtu ta gorde egin zuan. Apaloŕduan, beŕiz, Jabieŕtxo'k bere aspil, edo *plater*-gañean amasei pesete aŕkitu ziran, eta pozaren pozez aŕtu ta gorileŕzeŕa zijoala, diru-aspilan papertxoa zegoala oŕtu zan. Aŕtu, ta auxe irakuŕi zuan:

Jabieŕtxo'k bere amari zoŕ diona:

Etxean zortzi urte zorionsu bizi izan dalako	ezerez.
Urte oyetan jaten eman dioiako	—
Jantzi egin duelako	—
Gaxotu zanean zaitu zualako	—
Ama on-ona izan zayolako	—
Guzia	ezerez.

JABIEŔTXO'REN AMA

Paper au irakuŕi zuanean Jabieŕtxo aŕitura geratu zan; baña amak adirazi nai ziona bereala igeri zuan. Orduan amagana joan da, dirua aizera eman, eta negaŕez zioten: Barkatu, amatxo, gaizki egin det-eta; ba-da kit orain, amak semearentzat zerik ez duala, ta semeak, ordea, amari dion zoŕa iñolaz ere ezin ordaindu dezakela. Gaurtik auŕera txintxoago izango naza, amatxo; eta agintzen zaidan guzia txintxo egingo det, ezer eskatu-gabe.

Amak besarkatu egin zuan, eta pozik barkatu zion. Aŕezkero, Jabieŕtxo'k aingerutxoa zirudian. Ura mutiko txintxoa! Eta laster ikastetxera joan beaŕ zala-ta pozik zegolarikan, oleko mis txil batek atzapatu, ta aŕgerwak, noski, berekin jostatzera zerura eraman zuten. Ikastetxean erderaz ikastez gaiztotu egin etzedin-edo.

Ara ba, ene legun oyek, Jabieŕtxo nor zan. Bera bezelakoak txintxoak izan gaitean gu ere. Eta zuek emen zaudeten gurasoak, gure euskera kutuna Jabieŕtxo'ren gurasoak bezela maite ezazue, ta zuen seme-alabai etxean beti euskeraz itz-egin.

ESAN DET

(1) Ikurtz Dean Jayan Koru'ko Andre Maria'ren ikastetxean irakatsia.

EROMA'TIK

AITA SANTUA

emakume biloiztuen kontra

Eroma'ko *Santa Domina* deritzaion Eŕuki-Eŕsako Batzaŕe asmotan duten *dama* edo emakume aundikiak Aita Santuakin itz egitera joateko ziran. Egune ta ordua izendatu ondoren joan ziran danak batean Batikanora. Andre oyek, orain beste asko ibiltzen diran bezela, sofaiko aŕiñet goi-aldiak erdi-biloizik eta besoak osoro agirian zituztela zijoazen. Aita Santuak emakume aundiki ayen jazkera oaŕtu zuenean, bere auŕera joatea eragozi egin zien, eta Aita Santuakin itzik egin gabe señora guziak Batikano'tik iŕten beaŕa izan zuten.

Emendik auŕera, beaŕ dan bezela jantzirik ez diozten emakumeak Batikanoan ez omen dira saŕtuko. Aita Santuak oŕela agindu du.

Artzobispo gelaraia ere beren menpeko apaizari, izpo, paroŕ aldi ta besook agirian dituzten emakumeai itzik ez-egiteko agindu dir.

***

Beŕi auek pozgaŕi izan zaizkigu: bada emen ere emakumeak lotsagaŕi jantziak ageŕtzen zaizkigu, eta Eroma'ko ta Italia'ko beste Gotzai-barutietako agindu auek gure eliztaŕai ere emango dirala uste degu.